

GIG 15

ALGORRIKO KT MUGA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 2

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Kretazeoaren eta Paleogenoaren arteko muga (KT muga) Algorriko senadian dagoen geruza buztintsu fin eta ilun batek zehazten du; geruza hori, hain zuzen, Maastrichtiarraren bukaerako tupa gorrixken eta Daniarreko karekizko sekuentzia gorrixkaren artean dago. Mugak argi eta garbi adierazten du itsas faunaren suntsipen handia gertatu zela, eta badu beste berezitasun bat ere: meteorito batek Yucatánen izandako talkarekin lotutako konposizio-anomaliak ditu.

Mugaren eremuak 5 cm inguruko lodiera du eta zizaila alpetar batek zeharkatzen duelako bereizten da; izan ere, hainbat kaltzita-zainek definituriko zizaila horrek eten egiten du buztinaren albo-jarraitutasuna. Buztin horren barruan, nikel ugaridun espinelak daude, mikrokristitak, kedarra eta, ikuspuntu geokimikotik, iridioaren anomalia garrantzitsu bat.

Paleontologiaren ikuspuntutik, Zumaiako KT mugak hiru alderdi markatzen ditu: amoniteen erabateko suntsipena, foraminifero planktonikoen galera nabarmena (% 93ko galera biomasan eta % 70ekoa aniztasunean) nahiz karekizko nanoplanktonarena (% 80ko galera biomasan eta % 60koa aniztasunean).

Zumaiako KT muga erreferentziako azaleramendu klasikoetako bat izan da mundu-mailan KT mugako suntsipena aztertzeke; talkaren teoriaren sortzaileek ere aipatu zuten Zumaiako muga. Muga hori, gainera, funtsezkoa izan zen amoniteen bat-bateko suntsipena aztertzeke (Wiedman, J., 1988 eta Ward, P. *et al.*, 1993). Nazioarteko maila goreneko aitortpena egin diote azaleramendu horri, GEOSITE kategoriatik baitu, eta gainera, muga horretarako GSSP izendatzeko proposatua izan zen 90eko hamarkadan.

NOLA BERTARATU

Zumaiatik San Telmo ermitaraino joan behar da autoz, eta handik, oinez jo behar da bidexka batetik Algorri lurmuturreraino (NW norabidea, itsasorantz), Algorriko senadi txikira iritsi arte. Senadira ura behe samarrean dagoenean bakarrik joan daiteke.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Algorriko begiratokia.




Mugaren eremua, itsasotik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559383 m / Y= 4794406 m / Alt.= 0 m



Algorriko geruza eta iridiozko geruza barne hartzen duen kanala, gertutik ikusita.